

3. Funtsezko Elkartek:

• Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

City parking proiektua aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da bazkideak izatea. Izan ere, ideiak ezin du aurrera egin eta luzaroan iraun haien laguntzarik gabe. Gainera, baliabideak lortzeko beharrezkoak dira ere hornitzaileak.

Hori dela eta, hauek dira proiektua aurrera eramateko funtsezko eragileak, aktoreak edo bazkideak.

- **Udaletxea:** aplikazioa aurrera eramateko udaletxeak **hasierako inbertsioa** emango du. Azkenean, eragin zuzena izango du hiri edo herriaren errepideetan eta segurtasunean, beraz, onuragarria izango da harentzat.
- **Informatikoa:** aplikazioa egiten eta programatzen dakien pertsona bat behar da. Azkenean, ideia errealitatera eramango du eta kasu honetan, ideia oinarria aplikazio bat sortzean datza. Horrekin batera, aplikazioak funtzionatu ahal izateko aparkaleku bakoitzean sensore bat txertatuko da. Horren funtzionamendua ere informatiko baten pean dago eta hark programatuko ditu.
- **Ingeniariak:** funtzionatzen duten sensoreak sortuko dituen ingeniari taldea behar da.
- **Elektrikariak:** sensoreak kalean jarri behar dira eta ondoren, haien mantenua egin. Horretarako, elektrikariek elektrizitate instalazioa egin behar dute eta arazoren bat gertatzen bada, konpondu.
- **Diseinatzailea:** aplikazioaren diseinua egingo duen diseinatzailea behar da. Diseinu sinple eta ulerterraza izango da, adineko pertsonak ere erraz erabili ahal izateko.
- **Marketing arduraduna:** bezeroaren beharrak aztertuko ditu eta horretan oinarrituta, etorkizunean egin daitezken hobekuntzak eta aldaketak proposatuko ditu.
- **Publizista:** Gure aplikazioa bezero berriei iristeko publizitate kanpainak egingo dituen publizista behar da. Instagram edo kalean kartelak jarriz aplikazioa ezagutzera eramango du.
- **Kontablea:** enpresaren kapitalaren kudeaketa eramango du eta etorkizunean aplikazioaren prezioa aldatu behar den ala ez jakingo du. Horrela, arriskuak murriztuko dira.